

1994ko MAIATZAREN 18ko URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamalauko maiatzaren hemezortzian, gaueko bederlatziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Ramon Bengoetxea Altuna Udalkidea ez da bilerara agertu; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

URJENTZIZKO BILKURARAKO ARRAZOIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi diren gaiak benetan garrantzi handikoak direnez, Bilkura honetan, urjentziz gai hauek tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

HERRITAR INTSUMISO BATEN EPAIKETA

Militarizazio eta ejertzitoarekiko aurkako joera adierazten duen intsumisioa gazte-sektore askoren aldetik dago onartua eta bereganatua, ejertzitoari eta derrigorrezko soldaduskari uko egiten diotenak egunetik egunera gehiago direlarik. Gizarteak ere bat egiten du gazteekin, ados baitago gizarte neurtzeko erabiltzen dituzten balore berriekin.

Beraz, ez da kasualitatea gure gazte gehienek intsumisioaren aldeko jarrera har dezaten, eta gizarte sektoreen aldetik hainbesteko elkartasuna jaso dezaten.

Estatuak bere ohizko jarrera errepresiboarekin erantzuten du gazte intsumisoak epaituz eta gartzeleratuz, eta halaber ejertzitoari laguntza ukatzen edota Udaletxeetatik elkartasuna eskeintzen diotenak ere.

Guzti hau dela eta, Herri Batasunak, Udal honi, hurrengo puntu hauek onar

ditzala proposatzen dio:

- 1.- Orain artean hartutako erabakiak berrestea.
- 2.- Euskal gazteek soldaduska ez egiteko duten eskubidea aldarrikatzea.
- 3.- Lizartzako gaztea den, JOSE JABIER IMAZ EIZAGIRREren epaiketa salatu eta Udalaren elkartasuna adieraztea.
- 4.- Epaitu eta gartzeleratuak izan diren gazte guztien berehalako askatasuna eskatzea.
- 5.- Edonorentzat ere, zilegi dela intsumiso aitortzea, onartzea.
- 6.- Estatuko Gobernuari eskatzen zaio, kontzientzi eragozpenerako legeak aldatzeko neurriak hartzea, espetxeratze zigorrak deuseztatuz eta, beharrezko soldaduska indargabetzea.

Proposamena eztabaidatuz gero, aho batez onartu da.

EUROPAR LEGEBILTZARREKO 1.994KO HAUTESKUNDEAK

Indarreango Hauteskunde Arauek zehaztutako lege-betebehar guztiak bete ondoren, Udalbatza honek, aipatzen diren hauteskunde mahai guztiak eratu ditu, aipatzen diren pertsonekin eta zehazten diren karguekin.

ATALA: 1 - MAHAIA: 1

TITULARRAK

Lehendakaria: IMAZ EIZAGIRRE, BEATRIZ - E.N.A. 72.445.550

1. Mahaikidea: ZEBERIO ARRUABARRENA, JOXE M^a 72.437.335

2. Mahaikidea: ZINKUNEGI ORBEGOZO, ELENA 34.088.543

ORDEZKOAK

Mahaiburuarena: MENDIGAIN BENGOETXEA, XANTI 34.105.761

Mahaiburuarena: ZUBELDIA ETXEBERRIA, AMAIA 72.441.256

1. Mahaikidearena: AROZENA ETXEBERRIA, JUAN 15.217.916

1. Mahaikidearena: ZUBILLAGA ZUBIARRAIN MARTIN 72.416.767

2. Mahaikidearena: OLAETXEA GARAIKOETXEA BIXENTE 15914100

2. Mahaikidearena: BENGOETXEA OTERMIN, INMA 34.095.292

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko bederatziterdiak direnean.